

AURREIKUSPENAK ERABAT GAINDITU DIRA, PLAN ESTRATEGIKOAN PARTE HARTU DUTENEN %60 BAITIRA

425 gizarte eragilek jaso dute 'Bai Euskarari' Ziurtagiria

■ Ziurtagirien ematea atzo arratsaldean gauzatu zen, Donostiako Miramon Teknologia Elkartegian egin ekitaldi batean

■ Ziurtagiria jaso duten eragileek euskararen alde proposaturiko neurri minimoak indarrean jarriko dituzte

■ «Kalitatearekin dago lotuta gure erronka hau», azaldu zuten Akordioaren jarraipen batzordeko ordezkariak

Arantxa Iraola / Donostia

DONOSTIAKO Miramon Teknologia Elkartegian atzo 425 gizarte eragilek *Bai Euskarari* Ziurtagiria jaso zuten. Horrek esan nahi du Bai Euskarari Akordioaren ildoan gauzaturiko Plan Estrategikoaren barruan proposatu zaizkien euskararen aldeko gutxieneko konpromisioei baiezkota eman dietela.

Gizarte eragile horiek Plan Estrategikoan esku hartu zutenen %60 izaki, gustura mintzo ziren atzo ekimenaren sustatzaile eta dinamizatzaileak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko ordezkariak. «Gure aurreikuspenak askoz ere zuhurragoak ziren», azaldu zuen denek ize-nean Kontseiluko komunikazio arduradun Pili Kaltzadak.

Denera 23 sektoretan egin da prozesu hau guztia, eta lantaldeak dinamizatzeaz 12 teknikari eta koordinatzaile bi arduratu dira. Ekimen guztia, gizarte ekarpenez finantzatu da, 1999ko otsailetik aurrera egin zen *Lanordu bat Akordioaren alde* ekimenaren bidez 180 miloi lortu baitziren (7,2 libera).

Prozesuak izan duen bila-kaerarekin gustura mintzatu zen gizarte eragile guztien aurrean atzo Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendiguren ere. «Bai Euskarari Akordioak era askotako emaitzak emango ditu aurreantzean ere; orain lehen uztat biltzen ari gara, baina aurrera begira jarri behar dugu, etorkizun lanean ari garela. 'Bai euskarari' esanez adostasun gune bat erai-ki dugu», azaldu zuen.

Mendigurenek esker oneko hitzak izan zituen ziurtagiria jasotzera bertaratu ziren gizarte eragileen ordezkari-entzat. «Gizarte eragileak berriro ere aitzindari zarete», esan zien. «Euskararen aldeko urrats bakoitzak hazten laguntzen digu».



GARI GARATIALDE

Donostiako Miramon Teknologia Elkartegian izan zen atzo ziurtagirien ematea.

Ziurtagiria jaso zutenei gogoratu zien konpromiso hartu berriak Jaurilaritzaren Euskara Biziberritzeko Plana dutela, besteak beste, oinarri, eta gizartearen gehiengoaren nahiaren isla direla. «Gizarte-ekari hori entzuten jarrai dezazuen dei egiten dizuegu», esan zien, etorkizun euskal-dunagorako deia eginez.

«Gizartearen zerbitzura»

Akordioaren Jarraipen Batzordeko kide bik ere hartu zuten hitza atzoko ekitaldian. Hain justu, Nafarroako Emakume Zuzendari eta Enpresari Elkarteko ordezkari Maria Angeles Amezketa eta MCC Mondragon

Corporacion Cooperativako Xabier Erdoziak hitz egin zuten.

«Neurri handi batean zuen izenean berba egiten ari gara», esan zuten. «Gaur *Bai Euskarari* ziurtagiria jasoko dugu, eta eskerrak eman dizkigute, gainera. Ez gaitezen laudoriotan gal. Izan ere, guk ez dugu ezer

ezaugarriak

Ziurtagiriaren xede eta arauak

■ Honakoak dira atzo 417 gizarte eragilek jaso zuten ziurtagiriaren ezaugarri nagusiak;

Eskari sozialaren zerbitzura • Hartzen diren neurriek zerbitzuak euskaraz jasotzeko dagoen eskari sozial gero eta handiagoari erantzun behar diote

Hizkuntzaren normalizazio prozesua antolatu • Euskararen normalizazioarako prozesua antolatu behar da, eta horren eutsigarritasuna ahalbideratu behar da.

Kreditatzeko aukera • Normalizazio bidean diharduten erakundeek hori kanpora begi-

ra kreditatu dezakete ziurtagiriaren bitartez.

Prezioa du • Ziurtagiria lortzeko erakundeek duten tamainaren arabera kopurua ordaindu behar dute. Urtero 10.000 pezetako prezioa izango da oinarria, eta langileko beste 1.000 pezetako gehitu beharko da.

Erakusgai jar daiteke • Ziurtagiriaren anagrama, erakundeek barne nahiz kanpo komunikazioarako erabil dezakete.

Epealdi jakina du • Ziurtagiri bakoitzak epealdi jakina du, eta erabilera okerra egiten duen erakundeari kendu ahal izango zaio.

Xabier Mendiguren

■ ■ ■ «Gizarte eragileak berriro ere aitzindari zarete»

Odon Elorza

■ ■ ■ «Iraultza lasaia izan behar du honek; denon arteko adostasuna eta erritmoen gaineko gogoeta bideratuko dituen»

apartekorik egin; dagokiguna besterik ez. Gizartearen zerbitzura lan egiten dugu guk; herritarrek eskatzen dutena eta behar dutena ematea da gure eginkizun nagusia, eta gaur egun Euskal Herrian kalitateko zerbitzua eskatzen du gizarteak, baita euskarari dagokionez ere», esan zuen Xabier Erdoziak. «Kalitatearekin dago lotuta erronka hau, etorkizunari begira jarrita gaudelako, eta etorkizunean are nabariagoa izango delako euskara eta kalitatearen arteko uztardura».

Ondoren, jarraipen batzordeko gizarte eragileak, 225 kideen izenean ziurtagiria jaso zuten era sinboliko batean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko zuzendaritzaren eskuetatik.

Ekitaldian Donostiako alkate Odon Elorza ere esku hartu zuen. «Euskararen normalizazioak bide luzea du egiteko», esan zuen. Akordioaren bidea goratu zuen. «Iraultza lasaia izan behar du honek: denon arteko adostasuna eta erritmoen gaineko gogoeta bideratuko dituen».